

74R

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

185n. Zenbakia Orrilla/Maiatza
1994



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE**



**MUNGIA'KO UDALETXEA
(BIZKAIA'N)**

BA-GARA?

**Ez dogu beldurrik
ez dogu lotsarik
nor garan, zer garan
aitortzeko**

T. Monzon

Berba ederrak, politikak, arrokeriz beteak, baina egiazkoak? Benetan gure izakerea eta izana adierazteko beldurgabeak gara? (Lotsagabearena beste gauza bat izan leitekenez...) Egia da ez daukagula arazorik gure izatea agertzeko edonon eta edonoiz?

Adibideak jartzearen or doaz batzuk: Abertzalea, kristaua, euskalduna... Bataren batek, berak argi daukela esango dau, irurak sentitzen dala eta edozein eta edonon adierazteko ez daukala inolako arazozrik. Egunkari eta beste komunikabideetara begirada bat botatzea baino ez dago ikusteko abertzale, kristau edo euskalduna izan eta batez ere bizi danak, zelango jipoi, irribarre maltzur eta mesprezio jasan bear dauazan. Zerbait izatea erreza da, baina bizitzea beste kontu bat dala dirudi.

Politika mailan. abertzaletasuna dirudi mundu guzti-ko kalte eta ezbearren erruduna: gerra, asarre, ikusezin eta konpon-ezinena. Abertzaletasunaren erruz gertatzen ei dira orreek guzti orreek, azken batean pentsakera politiko au banatzailea ei dalako, eta gaurko gizarteak bizi dauazan era guztietako krisiak (ekonomikoa, morala...) konpontzeko, batasuna bear dalako.

Batasunaren izenean ezberdintasun guztiak lurperatzea nire ustez itsukerian bizi izatea da, begi-aurrean dagoena ez ikusi gurea. Egia dan arren danok jaio inela negarrez eta bilusik. ez da egi txikiagoa izkuntzak. eziketak, jatorriak, lekuak, oiturak, azalaren margoak, erlijioak, eta apur bat estutu ezkerro, arrazak berak ere bereiztu egiten gaituela. Au guzti au ez da pentsakera bat, Izadiaren legea baino, bestela Naturako espeziei begirada bat emotea baino ez dago ori ikusteko. Beste guztia begiak sarratzea, itsukeria da. Oraindino bada bataren bat Naturaren legeen aurka dabilenik? Badirudi orrela dala, danok bardinak izan gaitezana batzuren aleginak ikusirik.

Batasuna eta bardintasuna ez dira gauza berbera. Eta gainera nire ustez ez da bardintasuna, berdinkeria baino aldarrikatzen dabena. Artaldea bezela. Nork be-

reiztu leikez artalde bateko ardiak? Ni neuk. andi baltza aparte itzita, ez naz gai edozein artaldetako ardiak desberdintzeko. Txakurrak berak ere, zaindaria eta orden jartzailea izan arren ere, ez dot uste bereizten dauzani. Artzaina da ia bakarra pizti bakoitza zein dan dakiana. Eta orixe dala uste dot gugaz ere egin nai dabena, artalde biurtu, aari eta guzti, ardi-txakurrik falta barik. Artzaina izan daitela nora eta nondik goazen, zelan eta noraino eldu bear garan, dakian bakarra.

Erljio kontuan ere, gauzak ez dagoz obeto. Kristautasuna adierazten dauana gaur egun, kasurik onenean tontotzat artzen dabe, eta orregaitik asko ez dira ausartzen bere burua kristautzat agertzen. izatea eta bizi izatea: "Kristaua naz baina ez dot praktikatzen". Zer dago onen atzetik? Banaz baina ez naz? Kristau izateari itzi barik, beste era batera bizi? Zer da "praktikatze" ori? Obeto laga, erantzun bako galdera asko sortuko litzateke eta.

Dana dala, gotzai, abade edo eleiz gizonak aipaturiko moral krisialdi orretan salaketaren bat bota ezkerro, bereala datoz betikoen kexak: Atzerakoiak, mundutik aparte bizi dira, ez dabe gaurkotu nai, ez dabe ulertzen gaurko gizartea... Eleizak edo/eta erlijioak ete daukaz ere, gaurko gizartean dagozan arazoen erru guztiak? Beti danez errezagoa iñori errua botatzea, norberaren akatsak aitortzea baino...

Eta zer esan, ez danik esan, euskalduntasunari buruz? Aspaldion errezagoa bada ere euskaldun bizi-tzea, ez dot uste bear eta ahal bezain beste "praktikatzen" danik. Badago oraindiño naiko lana! (eta ez erreza)

Azken batean, ainbat gara pekatuotariko bat edo danak daukaguzanak: abertzalea, kristau edo/eta euskalduna izatea. Baina abade asko arren pekatua parkatzeko prest, ez goaz autortzarik egiten, euki ere, ez daukagu damutzeko asmorik eta.

ENRIQUE ITSASALDE

USTELKERIA

Beti entzuten

Aspaldion beti diardugu entzun eta entzun ustelkeria zabal dabilhela, bai laterri-barruan eta bai beste laterri batzutan, eta askotariko ustelkeriak agertzen direala, politikuen artean naiz diru-gizonen arloan.

Ustelkeria zer dan eta zer ez dan, ez da nik zeaztu-bearreko gauzea, orretarako lege-munduan jakitunago izan bearke neuke, baiña arlo onetan oker dagozala ikusten diran gauza batzuk bai aitatu neikez.

Batzutan Angland'eko gizon batzuk olako bide okerra artu dabela entzuten da eta agiantaritzako sailbururen bat kentzen dabe. Eurak agiriko seksu-arazoetan izaten dira gogorak, baiña diru-arazoak be zeatz aztertzen dabez.

Laterri Batuetan be agintari nagusiari eta bere emazteari olako edo antzeko arazoak agertzen dautsez euren bizitzan, eta estualdiak igaroten dabez.

Italiatarrak be euren gobernatzaillenen artean usain ori dauken korapilloak eta latzagoak aurkitu dabez eta gobernu-bide barria billatu bear izan dabe.

Eta zer esan emengo laterriari buruz? Izenik ez dogu aitatu, baiña gaur egun ago-miñean dabilzan politikuak eta diru-gizonak guztion gogoan dagoz.

Zer dan or jazoten dana? Agintariak eta dirudunak daukezan tentaldiai aurka egitea ez dala gauza erreza, eta bear ba'da beragoko mailletan be antzeko okerkeriak egiten dirala jakia, naizta albiste izatera eldu ez.

Jokabide okerrak

Agintaritzak naiz erri-aurreko ardureak indar aundia eskuratzen dautso arlo orretara sartzen danari, ari asko daukaz eskuetan, eta errez artzen dauz egokiak ez diran bideak: Ordaindu bear diran zergak ordaindu ez, etxegintzako lanak adiskideai emon edo emotearen orde dirutza bat norberarentzat artu, saltzeko diran lurak noz salnueurri aundiagoa izango daben jakin eta gero saltzeko merke erosi, udaletxeetako arau osagarriak norbearen onerako aldatu, beste egiten izten ez jakezan gauzak norberak egin edo norberaren adiski-

deai egiten itzi, epaia zuzen emon-bearrean norbearen edo adiskideen alde emon, edo diru-truke epaia aldatu, edo epai era batera emoatearren dirua nai emaitzak artu, zergak ordaindu barik norberaren aberastasunak ezinbestean ugaritu...

Erri-dirua

Ustelekeri askoren oiña dirua izaten da, batzutan erri-dirua erabilten dabenak okerbidez erabilten dabelako, beste batzutan norberaren dirua bear ez dan eran lortzen dalako.

Erri-agintaritzan oiñarritzen dan gizarte-zaletasuna errigintzarako biderik onena dala beti uste izan dogu, baiña baldintza bat eskatu bear jako: benetan erri-agiantaritzakoa, demokratikoa, izan daitela. Eta baldintza au betetea ez da erreza izaten: Agintaritz ego-kiro banatu bear da, maillaka, eta erri-dirua ardura aundiaz erabili. Or agertzen dira sarritan akatsak. Guztiona dan dirua edozelan erabillita ikusten dogunean, gure demokrazi-zaletasuna bera be zalantzara sartzen da.

Mesedeak

Ez dira sarritan diru-arazoa izaten, baiña urrean ibiltzen da diru ori: Norberaren etxekoai edo adiskideai edo len mesederen bat egin dauskunari mesedeagaz erantzuteko arriskua dago agintarien artean. Sarritan etxean izaten dabez trebe-trebeak diran langilleak, baiña irudi txarra agertzen dau etxekoai lan-leku onak emotek edo beste mesede batzuk egiteak, sarritan etxekoak ez diranak itxaroten dagozala. Ori txarto dago trebeak diranean be, eta trebeak ez diranean?

Jokabide argiak eta garbiak ikusi gura doguz agintarien eta arduradunen artean, baiña orrek geure buruak aztertzer be bultzatu bear gaitu. Al dabenak okerkeri aundiak egiten dabez sarritan, baiña aundiak ezin doguzanak, ez ete doguz egiten txikiak?

GERNIKA SUTAN (4n. SARIA)

– Silencio todo el mundo que van a dar el Parte!

Esan zuan falangista alkondara-uridin batek eta guztiok gelditu giñan mutu. Ikutu bat eman zion irrati-gaillu arri eta fiiru-fiiru egin ondoren asi zan berbetan:

– Aqui Radio Sevilla, el general Queipo de Llano al habla: Hace aagun tiempo tuvimos que fusilar a los sacerdotes de Mondragon por colaboracion con los rojos-separatistas. A todos esos sacerdotes que colaboran con rojo-separatistas los voy a colgar del Arbol de Gernika, si es que le queda alguna rama, porque Aguirre el Napolentxu Chocolatero, en la retirada de sus tropas, ha prendido fuego a la ciudad que lo cobija. Asi dejan los rojos sus pueblos cuando se retuan...

– Viva España, arriba España! Ekin zion alkondara-urdiñak.

Arriba! Erantzun zioten beste guztiak. Ni nengoan ixilik, nere burua lurpean izkutatu nairik!

– Nik garbitu ditut berrogei baño geiago; emen garbitasun aundiak egin bear dira, apaizetik asita. Askotan eman diot guztua nere beatzari gatilloa estutuz.

– Ori, ori! Erantzun zioten mai-inguruko batzuek. Garbitu bear dira emengo gorri guztiak!

Falangista arrek zearka begiratzan zidan. Bederatzi lagun, gizon eta emakume, genden mai luzanga aren inguruan apaltzeko zai. Atera ziguten sopakoz egindako suku ariña eta bi piper aragiz beteak. Ardoa ona zan. Gure tabernarako ardo-billa agertu nintzan Logroño'n arratsalde aretan. berandu xamar. Kanean zijoa bateri auxe galde nion:

– Nun da emen ostatu merke bat?

Ortxe bertan, burnizko zubi orren ondoan. daukazu "La Fonda de las Animas": orixe dezu merkea.

Joan nintzan bertara eta Ebro ibai-gañera leio zuen gela eskeñi zidaten.

– Aparia amarretan. Esan zidan etxeoandreak.

Falangista, alkondara-uridin ura, pozik zegoen apaltzera-koan eta mundo osoa, apaizetik asita, garbitu ondoren, kontu-kontari asi zitzaigun. Gure taldetik alde batera. maitxo bat zegoen "Legion Condor"eko aleman batzuekin. Arrautza frijituak eta txorixo ederra jaten ari ziran.

– Badakizue joan dan ostegunean zer gertatu zan emen?

Zuk esaten ez ba'diguzu, guk ez dakigu ezertxo ere.

– Auek arrautzak txorixu ederrakin apaltzen ari zirala. agertu zan emen "Flechas Negras"etako kapaitan beltzaran flakusta bat eta galdetu zien alemaneri, ia nola esaten zan a erderaz.

Nik ez dakit. Erantzun zion doixtarrak. Baña, ori erreza da; joan zaitez sukaldera eta an...

– Ori besterik ez ba'da, orrenbeste neuk ere egingo det. Joan zan sukaldera... ta ba'dakizute zer ekarri zioten? Txistorra melar bat bi azeitunakin.

Algo algara eta parreak! Nik ez neukan parre egiteko gogorik, andik len-bai-len alde egitekoa, baizik. Goibel nengo. Nola liteke Jose Antonio Agirre lendakariak Gernika erretzea? Gudako tatika bat, jokaera bat, ote zan? Gau aretan ez nuan lo aundirik egin; begiak itxi ezin; loa atzeman ezin...

Gozaltzekoan, irratiak bezperako gauza berbera esan zigun. Artu nituen "El Diario de la Rioja" eta Iruña'ko "Arriba". biak berdin. Illundu zitzaidan biotza...!

* * *

– Ba'dakizute atzo zer gertatu zan?

– Emen ez digute aldizkaririk erosten uzten; ezta irratiak entzuten ere.

– Obe dezute ez jakiñean orrela bizi.

Ez nien ezertxo ere esan nere seme eta bere lagunari. Logroño'ko apaizgaitegian zeuden. Beuren Gazteiz'ko Seminarioa moroen eritegi birtu zuten ezker, eurak etxe gabe gelditu ziran. An zeuden emezortzi urteko gazteak nere semea eta bere erriko lagun Joxe. Bazkaltzera atera nituen biak Zaarreko restarate batera. Jaten ari gerala onela esan zidan semeak:

– Aita, emendik zortzi kilometrora El Recajo deritzan egazkiñentzako soloa dago eta atzo berealdiko taldeak irten zuen Bizkai aldera.

– Atzo?

– Bai, atzo. Egunero irtetzen dute aruntz: baña atzo talde aundi batek irten zuan.

– Bai. Esan zuan Joxe'k. Gutxienez ogeita amar, talde bakar batean. Guztiak Bizkai aldera.

Ori entzunda, nerecasa nengoan pentsatzen, oiek izan ote ziran Gernika erre eta apurtu zutenak? Eta, ori ala ba'da. nola esan litezke orrelako gezur borobillak. lotsarik aurpegi-ra agertu gabe? Gezurra ote da Agirre lendakariak Gernika erre dula?

Alde egin nuen nere errira eta Gipuzkoa'ko La Voz de España eta El Diario Vaseo artu nituen eta Errioxa'ko aldizkariak ziotena berdin-berdin auek ere. Donostia'ko ir'atia ipiñi nuen; berdin. Salamanca'koak, berdin. Burgos'ekoak, berdin. Guztiak zioten AginTe'k erre zula Gernika.

Bigaramonean, komunika bide guztiak, aurreko eguneko leloa. Aldaketarik gabe: Agir7-e'k erre du Gernika. Amabost egun luze gauza berbera bein eta berririo esaten. Asieran ez zuten egazkiñik aitatzan; gerora, bai. Baña, egazkin oiek itxasotik etorri zirala, zioten. Errioxa'ko Recajo, berriz, egoaldea dago. Zer ote zan egia?

"Gutta cavat lapidem", dio latinezko esaerak: Ur tantak arria zulatzen du. Esan da esan da esan, ari ta ari ta ari, aizkenerako munduak, batez ere katolikoak, sinistu egin zuan: AQirre'k erre du Gernika.

"Gezurra esan nuen Getari'n eta ni baño lenago zan atarín". Gure etxeko atarira etorri eta emendik alde egiten konatatu zitzaion gezur orreri; baña, aizkenerako gure etxetik alde egin zuen.

Atxubitetxe baserriko Mai-Kutz, gudak bultzata, or zear joan zan emendik urrun. Bizkai-aldera. Etorri zala esan zidatenean, berarekin izketalditxo bat egitera joan nintzan berarengana:

Kaixo, Mai-Kutz. Etorri zerala?

– Xenpelarrenak ikusita etorri naiz.

– Gauza gogorren bat gertatu da Gernikan...

– Zuk ez dakizu ondo zertzuk pasa diran.

Nik irratiek eta aldizkariak esandakoa dakit.

Eta zer da zer ori?

– Ba, Agirre k erre zula Gernika. Agirre'k eta gudariek.

– Agirre'k eta gudariek? Zeñek sinistu lezake orrelako gezurrik?

Ia mundu osoak sinistu du ori, Mai-Kutz.

An egon ba'lie, cz zuten sinistuko.

Zer gertatu zan, ba?

Astelena zan; feri eta azoka eguna. Jende asko. Ni ere an nebillen sei urteko nere alabatxoa eskutik nuela. Alako batean, egazkin bat agertu zan lenengo; gero, besteak.

Agirre'nak zirala esan dute.

Agirre'n gudariek gurekin zeuden egun artan, antxe bertan, egazkinak agertu ziranean.

– Bai? Irrati eta aldizkariak ez dute ori esan.

– Eta, sinistu egin diezute?

– Egia jakiteko ez gendukan beste biderik. Zuek, egazki aien azpian egon zeratenak, zuek zerazte gure jakin bidea.

– Azpian izan gera, bai. Suzkoak eta apurtzekoak ziran lergailluak: batek erretzen zuena besteak txikitu; batek puskatzen zuena besteak erre. Infernu latza gertatu zan Gernika.

– Eta, nola irten zendun infernu artatik?

– Erritik iges, Bermio'ko bidea artu nuen beste askoren artean arin-arina, nituan indar guztiakin. Egazkin lergalludunen ondoren beste ariñagoko batzuek agertu ziran jendea-ri tiroka. Euren bidea lurrean balaz markatzen zuten.

Baña, gudariei botako zieten tiro oiek...

Ez, Txomin, tiro aiek guretzako ziran. Larritasun aretan badakizu zer egin nuen? Nere umetxoa zangara, errete-nera bota, eta neu gañean nere gorputzarekin berea ez tali.

– Baña ori orrela ezin diteke izan.

– Ba, alaxe izan zan; joan zaitetz zu orain or zear Agirre eta bere gudariek erre zutela Gernika esaten...

* * *

Urte asko pasa dira arrezkero. Orain danok dakigu zeñek erre zuen Gernika; batzuek, ordea, joan ziran beste mundura

orrelako egi mardul eta galantak jakin barik. Alemania'ko Jaurlaritzari kalteak ordaintzeko eskatuta, sorbaldak jaso ditu... Izan ere, gaur egia dakigun arren, eta mundu guztiak dakien arren, zeñeri ajola zaio Gernika zeñek erre zuen?

Ipuin-antzeko au EUSKERAZALEAK'en Ipui-sariketara bialdu nuen Azillaren 20'an edo. Andik illebetara, Abendua- ren 21'ean, 1993, Zumarraga'n nintzan Jesus Arana'ren gorputz aurrean otoitz egiten. New-York'eko Corpus Christi parrokiaren laguntzaille zan, gaitzak arrapatu zuenean bere mendean. Bere etxera ekarri zuten iltzera. Arrebak eman zidan anaiak egindako liburua. Egillearen eskuz idatzitako eskeintzak onela zion:

"Anes Arrinda apaiz zintzo

eta aspaldiko lagunari

biotzez Jesus Arana".

Liburua orain artu ba'det ere, eskeintza 1993'ko Dagoni- llean eginda zegoen. San Roke egunean, Deba'ko Festa, eguerdi-eguerdian agertu ziran nere etxcan eta alkarrekin bazkaldu genduen berak eta beste Julita eta Maria Rosario bere arrebek. Liburua ekartzea aztu zitzaien. Liburua nola zabaldu, izan zan alkar-izketaren leloa alde batetik eta bes- tetik, berriz, Ameriketara (Buenos Aires, Bahia Blanca eta Patagonia) egindako ibil-aldia.

Nik ipui onetan esandakoak dakartzki Arana'k bere libu- ruaren aurreneko orrialdeetan. Berdin-berdin. Dagoni-lean liburua nere eskuetara etorri ba'litz, nik ez nuen ipuirik ida- tziko, andik artutako kontakizuna dirudielako.

Jesus Arana Urkiola, Zumarraga'n jaiotako apaiza, Ale- mania'ko agintari mota guztiakin ibillia da (baita Es- pañikoekin ere) Legion Condor alemanarrak Gernika erre zuelako, Alemania'ri esker-oneko agerpen bat eskatuz. Sinistu eziñezko lanak egin ditu agerpen ori eskatuz. Bide zabalatik eta bide txigor guztietatik ekin dio zortzi urtez; baña, alperrik.

An, Franco'k egindako zabalkundearen ondorenak, diraute oraindik eta ikasitako jende dotoreak, lenengo mai- lletan daudenak, sinisten dute "gorriek" egin zutela errete- lan ori. Oraindik ere! Zergaitik nik esandakoak eta Arana'k esandakoak alkarrekin diran? Biok egi bakar bat esaten degulako. Biok gera Franco'ren zabalkundearen lekuko; bera ni baño amar urte gazteago. Nik 24 urte eta arek 14. Baña, biok gauza berdin baten testigu. Nere ipuia, benetan gertatutako zatiekin egiña dago. Ipui baten itxura izan arren, histori utsa da. Arana'k berriz, histori-liburua idatzi du.

ARRINDA'TAR ANES'EK
1994'ko Ilbeltzean

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ




Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultura Saila

EUSKAL ABIZENAK



AURKEZPENA

Zubikarai'tar Augustin dogu gaur azken-egun one-tan, "Euskaldunen Abizenak" gaitzat artuta. Gai asko dago euskaldunak erakarten gaituezanak, baiña gitxi gure abizenai dagokiezanak baiño jakingarriagoak, areitan gure jatorriaren zati garrantzitsua oiñarritzen da-ta.

Alperrik litzake gaur, Zubikarai Jaunaren nortasunari idazlanai, eta ekintzai buruz barri emotea, orretarako ordubete asko bearrezkoak izango litzakez-eta. Aski da esatea, euskal alorrean idazlerik gorenetakoa dogula eta idatzitakoak naikorik ez bai'litzazan, oraindiño idazteari darraikio, iñoizkorik oparoen eta ondoen. Urte asko emon dagitsazala Jaungoikoak, idazle ta maisutzat jarraitzeko.

Asi bedi beraz, itz egiten.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

Euskerazaleak antolatu dauan Euskal Astea gaur amaituko da

Augustin Zubikarai "Ondarroa" liburu barria kaleratu dau

BILBAO. Gaur amaituko da Euskerazaleak Alkartek egun oneitan antolatu dauan Euskal Astea. Azken izlaria Augustin Zubikarai izango da, Eskolapioen Ikastetxean (iluntzeko zortziretan) eta bere mintzaldia euskaldunen abizeni lotuka da.

"Ondarroa" barria

Augustin Zubikarai-ri buruz ari garenez, agertu daigun oraintxe bertan argitaratu dauala "Ondarroa" liburu barria.

Lan sendoa, bikaiña. Egileak bere lana 1900 urtean amaitu dau, aurreko jakin-garriak 560 orriade luzeetan jarriaz.

Iru atal nagusitan banatu dau gaia Zubikarai idazleak. Lenengoak "Erri-miñez" izena dau, eta bertan jatorria, kondaira, errigintza, erroltze zaarrak eta abar agertzen dauz.

Bigarrena eliz-giroari lotuta dago, "Fede eta gogo" izenaren azpian. Emen be ainbat jakingarri aurkituko dau irakurleak.

Azkena itxasoari buruzkoa da, Ondarroa batez be itxas-erria izan dalako, beti.

Gaia ondo eta barrutik ezagutzen dauan jaubetasun eta sakontasunaz idatzi dau liburu barri au. Idazkera zuzen eta argian, zer ikasi asko dago liburuan.

DEIA'tik

EUSKAL ABIZENAK

Gai zabala da.

Gai labana be bai.

Erraz txirrist eta laban egiten da gai onetan.

Eta geiago, Euskalerrian gizaldien gizaldietan euki izan doguzan sortzez euskaldun baiña izatez edo makurpenez edo arrokeriz, erri-eskribadu baiño errege-eskribadu geiago izan gura eben taldeei zeatz jarraituten ba dautsegu.

Nik esango neuke ia gure denboretaraiño euki dauan euskal eziketaren utsa, len euki eban lez gaur be ba daukela gure errietako kontulari zeatz eta zintzo izan bear leuken eskribadu eta idazkari askok, nai eta gaur udalen armarrietan, ez dakit zeñek emonda edo nun artutako baimenez, erriaren izena "gustiz leial eta gustiz zintzo" ipintzen ausartu.

Edozetara be, gaiak zerbait esatera beartuten nau eta ez dot ukatuko abizenak batzen edo aztertzen iñoiz zaletasuna be euki nebanak, izkuntza-begiz edo arauz baiño, kondaira begiz geiago, eta koipeagaz dabilenari zerbait geratzen jakon lez, nik be zerbait adierazoteko euki nei.

Argibideak

Abizenak dirala-ta ba daukagu bibliografia bat.

Gaurkoen artean, "Etimologias de Apellidos Vascos" Isaak Lopez Mendizabal'ena. Buenos Aires en 1958 urtean agertua. Bear ba da geien erabilten dana.

Or dogu "Los Apellidos Vascos", Endika Mogroberj o'rena.

Or "Los Apellidos Vascos", Koldobika Mitxelenarena.

Eta beste era baten Diccionario Onomastico y Heraldico Vasco, Jaime Kerexeta rena eta Casas Solarietas de bizkaia, berberarena. Kerexeta oiñetxeak batzen alegindu izan da, batez be ezagutzen diran errietako erroltzetan oiñan ituta eta nik esango neuke Kerexeta'k erabilten dakian zintzotasun, argibide eta zeaztasunagaz eredu bat emoten dautsela orrelako gaietan benetan arduratzen diranei.

Beste batzuk armarrien ildotik erabili nai izan dabez gure abizenak. Baiña ortik enaz ibiliko.

Aztergai geiago

RIEV'en (Revista Internacional de Estudios Vascos) Justo Garate'k idatzitako "Interpretacion de la toponimia vasca" lanaren adierazpen baten au irakurten da:

Jose Arriaga eta Igartua'k 3.000 euskal abizenen zerrenda emon eutsala Arana eta Goiri tar Sabin'ei, bere lanerako eta geroago Bilboko beste euskal erakunde bateri amabi milla inguru.

Jakiña danez Arana eta Goiri tar Sabin'ek, "Tratado etimologico de Apellidos euskal ricos" idatzi eban lenengo liburuxka baten, 21 orrialdetan, 1887 urtean, eta geroago 1895 urtean eta 128 orrialdetan, izen bereko beste lan sakonago bat.

Toponimiako argibidetiko lan batzuk Eleizalde tar Koldobika'k egin zitun. Onek "Indicaciones elementales sobre la formacion y los usuales componentes de las voces toponimicas vascas" agertu eban 1926 urtean.

Justo Garate berbarak ainbat lan idatzi zitun onetaz.

"Subfijos locativos".

"Toponimia Euskal rica".

Toponimia vasca en mapas antiguos" eta abar.

Ba daukadaz berak idatzitako karta batzuk eta berak Pertika deitura azaltzeko gogo bizia eukan eta Berriatu'n, Arantzadi'ko Madalen ermita azpikaldean dagon Pertika baserriaren eta inguruaren kokatze edo lekutze-ari buruzko argibide batzuk eskatzen eustazan.

Jose Francisco Irigoyen'ek be, "Euskal-erria" aldizkarian "Apellidos bascongados con su significacion" argitaratu eban.

Eta fraile kaputxino batek, Etxalar'eko Aita Eusebio'k, "Disertacion sobre el analisis e interpretacion de los nombres toponimicos vascos" idatzi eban. Lan au "Geografia General del Pais Vasco Navarro"n agertu zan.

Orrez gain Yakintza aldizkarian be idatzi zitun lan batzuk 1933-1935 bitartean.

Beste bat, askoren artean, toponimia, obeto esanda, euskal toponimiari buruz lan batzuk agertua Jean Jaurgain da.

Toponimia bakarrik ez

Abizen guztiak ez dira toponimikoak, ez eta antroponimikoak be. Eta Mitxelenak esaten daben lez eta ori danok salatzen doguna da, kopiaizailleen akats ugari-ritz beteta dagozala gaiñera.

Or datoz landaretzetik sortu diranak, bedar eta abetxo, basabere eta zuaitzetatik.

Or datoz gurasoakandikoak, bizi-bideko zeregiñetatik geratuak edo ta jatorrizko etxeetatik.

Edo ta goiti-izenetatik, edo ta deitura batetik (ez-izenetatik).

Orrela Baltza, Begiurdiña, Ederra, Ezkerra, Lande...a, Latza, Leuna, Sendoa, Txipia, Zuria...

Eta ba dira sormen bakarrekoak: Agirre, Gerrika... Edo ta bikotxak, Agirre-Amalloa, Gerrika-Etxea; Edo Irukotxak: Gerrika-goiko-barri; Bai eta laukotxak: Gerrika-goiko-errot-barri. Eta oraindik ugariago, boskotxak: Gerrika-barri goiko errot-etxea.

Orrela Agirre-gomez-korta; Pagonabarraga, Arizmendi-arrieta; Etxano-jauregi-errot.

Or dagoz, toponimiko ez diran abizen ezagun bi: Gartzia eta Santxo.

EUSKAL ASTEA

Gartzia, 789 garren urtean Castilla'n ezagutu ba zan be, aurrez Naparroan ezaguna zan eta Leon'go Ximena erregeña izan zan Castilla'n sartu ebana, baiña bera, aurrez, Naparroako printzesa izan zan.

Or dago Santxo. Au be 870 urte inguruan asi zan Leon'en zabaltzen, baiña aurretiago Naparroago kortean ezaguna zan.

Beraz Castilla eta Leon'era Naparroa tik joan ziran eta garai aretan Naparroa euskalduna zan.

Danok dakigu Gartzia Artza'tik datorren abizena dala, ala diño beintzat jakintsuak, eta Santxo osterantz, Anzo'tik, gero S protetikoa artu eta Santxo edo Sanso'n biurtu dana eta ortik Alonso, Alfonso.

Eta esandako gure eskribaduei esker, oraingotan nai ta esker txarreko euren mesedea, ortik zabaldu dira Antzo (Santxo), Anzo (Sanzo), Anzio (Sanzio), Aintzo (Santxo), Ainsu (Sangio) eta abar.

Abizanei zelan begiratu

Abizenen esan-naia jakiteko, egokiena eta zentzuzkoena, nundik datorren edo ta nun sortu dan jakitea da, Bear bearrezko gañera.

Gaur, Iraeta batek, esateko, danok dakigu zer esan nai dauan, edo ze erakusten daben, ze lekukotasun agertzen dauan, baiña leike gaur abizen ori daroanaren bizibide eta lekutzeak "ira"kin ze ikusirik ez eukitea, nai ta bere asierako jatorria iratzetan edo ira artean egon.

Edo eta Iturriaga. iturri-tokia, iturri-tza eta abar, gaur lekaro baten bizi.

Abizenei begiratu ezin leikiena da gaur daukagun euskera eziketarik norbere burua maixutzat artu eta berba bakar bat edo bestek esan edo adierazi leikenetik abizen baten azalpena ataratea.

Esateko arritu egiten naz ni Gizaburuaga berba, esateko, gizonen buruak esan naiean biurtzen dabenak dagozala eta ez kaleko berbeta eta jardunetan bakarrik, bai liburuetan be. Eta itzulpen ori ez da emengoa eta oraingoa; Lopez Mendizabal berberak be jasoten dau bere liburuan eta arinkerori salatuz, argi diño Gizaburuaga'ren esan naia: Erderazko "la parte alta del juncal. De iz-iza = junco y buru = cabeza o parte alta del juncal o del retamal. Viene de Izaburuaga, con G prot tica".

Edo eta Berriatua, barriztua edo berriztua dala esan gurea emotetik. Berriatua, Lopez Mendizabal'en irizpidez, beroo itza eta tu eta a atzizki edo subfijoz osotua. Erderaz, gaztelaniaz, jaral.

Beste batzutan igarri barik abizen batzuk aldatzen doguz, igarri barik, edo obeto esan naian itxura barri bat emoteko gurariz.

Nik, oraintsurarte, Azpitarte abizenez ezagutzen neban sendi bat. Azpitarte azpi eta gaz'egaz osotua da edo ta izan leike. Erderaz: luga de acerolillos.

Baiña orain aiz-bitarte aldatu dabela ikusi dot. Eta aiz-bitartera izen berbera aldatuta aiz- edo aritzetik oiñarritu geinke eta Robledal izango litzake edo ta aitzetik, atxetik, eta orduan Entre-peñas.

Or ikusi esateko berba erdika bategaz zelako aldaketa emon leiken norbere jatorriari.

Euskal abizenen kopurua

Zenbat euskal abizen?

Erri txiki gareala kontuan eukita, zenbat euskal abizen batuko ete gendukez danetara, ez zenbat euskaldun, zenbat abizen ez bardin baiño?

Koldobika Eleizalde'k bere Raza, Lengua y Nacion Vasca liburuan esaten eban, amar millatik gora zirala ezagutzen diran euskal abizenak.

Baiña kopuru ori makal geratzen da Fausto Arozena'k emoten dauzan zembakiekaz.

Arozena'k diño Boletin de los Amigos del pais'en idatzitako lan baten berak 48.000 (berrogeita zortzi milla) abizen zerrenda edo Cedula bat eukala, Gipuzkoako Korrejidorearen aurrean auzien bat euki ebenak XVI eta XIX garren gizaldien artean. Eta batzuk erderazko irudituarren, ez dirala orrela, euskal jatorriko baiño.

Beste aldetik or daukaguz Ameriketa errialdeak, Ameriketak.

Euskal abizenei buruz kopuru andiak emoten dira Ameriketarik.

Itxuraz Indietako urreak ten eginda, emendik leku areitara joan ziran euskaldunak odol beroa erabili eben. Eta abizenei, euren ezaugarriei iraun eragin.

Gaur esaten da Ameriketean Euskalerrian egon diran abizen guztiak dagozala, eta bear ba da geiago, batzuk emen galdu egingo ziralako.

Izpizuaeren liburu baten atzealdean, Los Vascos en Am rica, Panama-Peru liburuan, onelako textu bat irakurri leiteke:

"Guretako askok ba ete dakigu euskal abizena Ameriketako substractum'a izana dala?

Ba ete dakigu ba egozala bertako biztanlegoaren laugarren zatia euskaldunak ziran lurraldeak?

XVIII garren gizaldia ia igaroarte, euskaldunak giñala andik ibili ziran peninsulako ia bakarrak, gure odola bertan ixuriaz, eta gure enda edo arrazaren odola ango jatorrenekaz nastekatzeagaz indartu gendunak?"

Onetan gogoratzeko da Sanchez Silva senadoreak 1864 urtean atsekabez agertzen ebala Ameriketarik etozan euskaldunen zoritzarrak, berak esaten eban lez, sekula Castilla, edo Aragoi, edo Galiziar bat agertu ez zan tokietatik.

Gauzak orrela, zenbat euskal abizen ete dira Ameriketean?

1949 urtean Montevideo'n agertu zan Boletin de

Filologia baten, Migel Bañales'ek esaten eban berak amar milla batuta eukazala.

Sandalio Tejada'ren esanetan, Kolonbia'n bost millatik gora dagoz. Eta jakin bear da Colombia ez dala izan beste lurralde batzuk aiña euskaldunen gogoko.

Lopez Mendizabal berberak idatzita laga eban berak Buenos Aires'eko urrutizkiñen zerrendan azterketa bat egin nai izan ebal 1941 urtean eta bertan bi milla abizen euskaldun billatu zitula, baiña ez bardiñak, bi milla ezbardin baiño.

Nire azterketak

Nire jardunaldi oneri, besteen irizpide eta lanak eta ikerketak alboratuta, ni-neuk Bizkai'ko erri txiki baten. Ondarroa'ri, egindako ikerlan batzuen barri emon nai dot.

Erri txikia esan dautsuet nire Ondarru, nai ta biotzerako aundi danik ukatu ezin.

Ondarroa'ko abizenak, eleizetako liburuak asi aurretik dakiguzanak, gizon bakanen abizenak dira, Ondarru itxas erri danetik, itxasoetako gertaera eta ibilleretatik.

Orrela irakurten dogu XIV eta XV garren gizaldietan, Mediterraneo'ko itxas-gizon merkatari ospetsuen artean, Romo ondarrutarra ebilla, edo ta Urresti bat Sevilla eta Cadiz'en itxasontzi jaube ibili zala, edo ta Unda bat, eta Cillestegi eta abar.

Or ikusi dogu abizen bakan bat: Romo. Euskal abizena ete da Romo? Etimologfas de Apellidos Vascos liburuan au diño: Romo, en Lekeitio y Bilbao. Eta erderaz esan gurea = pastizal. De Oma = pasto con R prot tica. Lenakoak esaten ebena: roma locuta, causa finita, esan bear, ezta?

Eta aldi aretan billatzen dogu baita Inprubidi. Aztertzen asi ezkerro, Ingurubide ete da?

Eta Elantxo. Ez bata ta ez bestea ez datoz Lopez Mendizabal'en abizen ezagunetan, baiña ez nitzake arrituko, beste antzeko batzuk ikusita, L. Mendizabal'ek elkar- itza sustraitzat artzea, eta orrela, ortik ekin ezkerro, or lagako genduke pastizal edo brezal erdcrazkoen esangarriduntzat.

ONDARROAKO ABIZENAK

Jakiña da eleiz parroketako liburuak Trento'ko Bartzarraren ondoren asi zirala eroaten. Origaitik XVIgarren mendearen erdi aldera zabaldu ziran geienak, batez be bateo, ezkontza eta eriotzei buruz.

Ba dira urte batzuk, gure errian ezagutu izan diran abizen guztien zerrenda atara nebala euretatik.

Ez osoa.

1.550 urtetik asita 1.800 urte arteko lenengo abizena.

Baiña itxas-liburu zarretan bilatu izan dodaz gure erriko itxas-merkatari, txalopa jaube edo ta gidari eta abar.

Gaiñera len ez neban bigarren abizenik atara. Eta abizen orreik be ondarrutarrak dira, noizbaiten lenenak izanak.

Ba dirudi XVIgarren mendeko abadeak, gaur aiñako ardurarik ez ebela artu liburuak zeatz eroaten.

Urte batzuk aztertu ta sarri ikusten dira beste zerrendak, batzuk lengo bateoak baiño lenago egiñak eta orrela urte ta egunen goraberak naastuten.

Itxuraz abadeen batzuk euren zerrenda berezia eroaten eben, edo zerrenda barik gogoetan euki.

1.550 urtean amar bateo agertzen dira Parrokiko liburuetan. Auzo eta baserrien abizenak nagusi.

Pedro de Asterrika,

Maria de Miskia,

Madalena de Gorozika,

Pedro de Ubea,

Domingo de Unda.

Nikolas de Ayardia,

Maria de Gorozika y Gastua

Gabiola

Puerto Amallo

Zelaia-Berrosasi.

Orra lenengo urte osoko zerrenda.

1.551 urtean ez da iñor agertzen. Baiña urte bete georago, 1.552-en, oneik agertzen dira:

"En 26 días del mes de Febrero baptiz una criatura de Virriatua, sabe Dios de los padres, pusimosle Madalena a la dicha criatura. Ha por padrinos a Pedro de Zaldua y Madalena de Astuieta."

Beste bat: "Item en Prima de Junio de dicho anno baptiz una niña a Sancho de Lexardi y su mujer Teresa. Pusimosle por nombre _____ (Orrelaxe, izenik ez da agertzen)

Beste agiri bat izenik barik.

Urrengo au: "Item en 5 de Junio de dicho anno baptiz un muchacho de San Juan de Barrenechea y la madre de dicha criatura era de Amoroto. Al dicho niño pusimos por nombre Miguel."

1.553 urtean iru jaiotza agertzen dira bakarrik.

1.554'n amalau. Euretari baten izena bakarrik. Izen berezia: Inglesa. "De una señora de Motrico". Nunbaiten irakurri izan dot aldi aretan ia oiturazko zala aitatasunik agertzen ez ebenei onelako izena ezartea.

1.555 urtean, sei bateo.

1.556'en amasei. Bat ezelako abizen barik agertzen da. Domeka, de Motrico. Ezkutuan ekarri eban bateatzer Mutrikuko seroreak. Domeka emakume izenetan aurkitzen da aldi aretako agirietan.

1.557'n zortzi bateo. Bat, izenez bakarrik, Catalina. Gurasoa "forastero".

1.558 urtean amazortzi bateo. Emen be tartean Domeka de Ayardia bat.

EUSKAL ASTEA

1.559'en amabost. Tartean betikoa, Pedro (abizenik ez) de Durango.

1.566'en agertzen da beste izen polit bat: Andrasta.

1.574' n, Arrieta-Donestebe abizenak bateo baten eta gurasoak erromesak, "peregrinos".

1.577' n ba dago bat Gorozika-Aragoia, abizenduna. Ama "Catalina de Aragoia, moradora de la caseria de Goitiniz."

Ba dagoz tartetan aitaren abizenik ez eta amarena-gaz bakarrik, edo ta aitarena bai ta amarenik ez.

Beste batzutan XX eta geiagorik ez. Bateatzera "me lo traje la serora de Motrico" eta abar. Bateoaren konzientzi estua, aitasuna ezkutuan lagata.

Parrokitik kanpo, beste zerrenda bat

Itxasoetako gorabera zarrak irakurtean, sarri billatzen dira abizen batzuk merkataritzan ezagunak ziranenak, edo ta emen euren etxe zar eta armariak be euki zituen batzuenak. Ezpai barik parrokitik liburuak baiño aurretik egon ziranak.

Or nebillen beti eleizatik kanpora, orduko abizenen zerrendaren bat billatu nairik.

Eta erroltza bat aurkitu dot Udaletxean: "Libro padron para hazer el repartimiento y derrama concejil segundo huso y costumbre della. 1.541."

Ez da kaskarrari asko eragin bear konturatzeko 1.541 urtean egozan bizilagun oneik urteak eroango zituela errian. Eun eta sei lagun dira eta zerrenda osorik argitaratzen da, danak jakin dagien gitxi gorabera noiztik euren abizena Ondarroan ba egoan. Orrez gain abizen batzuk azpimarratuta agertzen dira. Zegaitik? Ba azpimarratutako orreik ez diralako agertzen eleizako liburuetan 1.550tik 1.600 bitartean. Beraz gorago ageritutako zerrendetan ez diralako sartzen.

Abadea	Etxebarrieta
Aia	Elgezabal
Albis	Egurrola
Alegria	Eizmendi
Apallua	Elantxo
Aranaga	Elexalde
Arano	Elgeta
Arrangiz	Estakona
Arrasate	
Arronategi	Gabaroa
Artolazaga	Galarza
Asensio	Gallate
	Ganboa
Barinaga	Goikolea
BerYOia	Gorostieta
Dendaidi	Ibarguren
	Inrubidi

Iraola
Irrarazabal
Isasoeta
Iturrino
Izea

Heria

Labeaga
Laka
Lasao
Lekuia
Lorriaga

Markina
Marzana
Meabe
Monguruza

Olaso
Orbea
Ormaetxea

Sestona

Tellaetxeri
Tellarilea

Abizenen argibide geiago

Ondarroa'ko parrokitik bateotako liburuak zabaltzen diranetik, 1.900 bitarterako bertako abizendegi edo apelliduen zerrenda bat egiteko ardura eta gogoia artu nebala, esan dut.

Au da, 1.550 urtetik 1.900 urtera.

Aldi orretan, denbora orretan, Ondarroako parrokitan bateoa artu eben umeak amalau milla inguru dira. Orduko sinismen, bildur, fede eta giroa ezagututa, ezpai barik esan geinke jaiotako guztiak sakramentu ori artuko ebela.

Bateorik geienak gaur be gure eleiz nagusi edo parrokia danen egiñak dira. Batzuk, batez be amabost eta amaseigarren gizaldietan, Antigua'ko eleizan. Bear ba da aldi aretan Antigua'ko eleizak parroki giroa eukiko eban askorentzat. Beste batzuentzat, eraspn edo deboziñoiko ondorena.

Garai aretan Antigua'k entzute andia eukan batez be itxastarren artean eta inguruetak askok jarraitzen eben bertara umeak ekarten, batez be itxastar titulodunak.

Aldi aretako agiri batzuk, partida batzuk, ulergaitzak dira, zeaztasuna galduak. Liburu batzuk zeenak eta zitzak janak, batez be 1.647 eta 1.670 bitartekoak. Eun inguru; garbi esanda, 97 dira orrela agertzen diranak.

Beste jakingarri bat: 1.608 urtetik eta 1.617 urtean sartu arteko agiriak falta dira, ez dira agertzen.

Antxiñako bikarioak eta arduradunak ez ziran beti zeatz eta esku zabal euren zertzeladak beteten. Orduko denborak, orduko giroak ba eukan pekatu berezi bat, sasoiko pekatua, kurtzailluen pekatua; argi gitxi, illuntasuna. Pekatu orretan bikario batzuk jausi ziran eta origaitik sarri irakurten dira liburuetan Kalagorritik etorten ziran gotzain (obispo) ordezkarien eta ikusleen asarre eta gaitz irizpideen agerpenak.

Ez daukagu oiñarririk edo biderik edo motiburik orduko bikarioen aurka ezer esateko. Gure-gurez ezin geinke esan ardurabakoak ziranik. Bestera pentsatzea obe litzake. Baiña, bear ba da, sasoi aretan arriskutsua izango zan zeaztasun askotan sartzea. Errezago, beti

be, txikikeriak eta jakin bear ez ziranak irribarrez es-taldutea, bikarioak euken aitatasunez eta itzalez zela-ala eskutatzea. Ala ta be, sasoiko biguntasun orrek, denboretako premiña orrek, gerokoentzat irri mintsua agertu eraziten dau. Ezin jakiñaren etsi bearra.

Len zerbait aitatu ba dogu be, gure liburu zarretan, garai aretan, era onetako esaerak irakurri eta billatu lei-kez sarri, bateora eroandako umien jatorriari buruz.

"...Dios sabe de qu padres".

....por mucho que averigu no di con sus padres".

...me lo traje la serora de Motrico, de una señora de Motrico".

"...hija de un mancebo forastero."

Sinismen itsu bateko ondorenak? Fede estuegi baten urratuak? Lege zorrotzegi baten bildurak eragiñak? Sorgiñen denboretako ezaugarriak?

Gure lanetik urtetan daben ikasbideak izango litza-kez orrelako sustraiak billatzea. Baiña giroa igarten da, orduko giroa. agiri eta paper guztietan.

Jaiotzen zeaztasun geiago

Esana dogun lez, XVIgarren gizaldian, gizaldiaren erdian asten dira erriko ezaugarriak, jaiotzei buruz, An-dra Mari parrokian.

1.550 urtetik 1.600 bitartean, zortzireun eta berrogei ta emeretzi (859) jaiotzen agiriak irakurten dira.

XVIIgarren gizaldian, au da, 1.601'tik 1.700 bitar-tean milla seireun eta amaika (1.611).

XVIIIgarrenean bi milla irureun eta irurogei ta amaika (2.371)

XIXgarrenean bederatzi milla eta larogei ta lau (9.084)

Ikusten danez, gizaldi batetik bestera aldakuntza an-dia, aurrerapide ugari ikusten da.

Sendiak ugaritu? Familiak geitzetik datorren ondo-rena? Edo ta giro areitako gerrak etxetako bakea sortu-ko ete eban?

Ume bakoitzaren, mutil nai neska izan, jaioten dan bakoitzaren aitaren abizena (apellidua) bakarrik eukiko dogu kontuan, gure kontuak ataratzeko.

Orrela, aitaren abizen ori kontuan eukita, gizaldi ba-koitzeko edo eunkada bakoitzeko abizen ez-bardiñak onetxek ziran:

XVIgarren gizaldian, 859 jaiotzetatik, eun eta laro-gei ta zortzi (188) abizen ez-bardin. Beraz oker andi barik pentsatu leike beste ainbeste famili biziko zirala, gitxienez gure errian.

XVIIgarren gizaldian, 1.611 jaiotzetatik, berreun eta berrogei (240) lenenego abizen ez-bardin.

XVIIIgarren gizaldian, 2.371 jaiotzetatik, berreun eta larogei ta amazapi (297) abizen ez-bardin.

XIXgarren gizaldian, 9.084 jaiotzetatik, laureun eta berrogei ta bost (445) abizen ez-bardin.

Emen esan lei, familiak geituagaz batera, famili ba-

koitzak seme geiago sortu ebazala, lengo gizalditik al-derantzi andia dagolako ugaritasunaren mesedean.

Ba dira beste abizen batzuk, aurreragoko gizaldie-tan, bestelako ibillera, paper eta kontuetatik dakigunez, ondarrutartzat emoten ziran abizenak, baiña bateotako liburuak idazten asi ziranetik agertzen ez diranak, aita-ren sustraian beintzat galdutaz emon leikazanak.

Alaxe, Aboitz abizeria. Beinere ez da agertzen le-nengo abizentzat 1.550 urtean asi eta 1.600 bitartean. Eta liburu zarrak Ondarroan billatzen dabe eta ipinten dabe bere sustraia eta bere bizitokia, ikurdi edo ta ar-marri ta guzti.

Bardin esan geinke, Albis abizenari buruz. Amasei-garren gizaldian amaren aldeko abizentzat, bigarren abizentzat, billatu lei, baiña ez aitagandiko zuzen lez.

Ala baita Ager, Afeteria eta abar.

Erderazko abizenak

Ondarroako liburuetan agertzen diran erderazko abizenak bana-banakoak dira XXgarren gizaldirarte.

Gitxi ziran lengo gizaldietan gure erri onetan jaiota-ko orrelako abizendunak. Geienetan agirietan igarten da ze eratako bidez emen agertu edo erakutsi eben jaiolekuko eskubidea.

Ikus batzuk:

Oliveros-Sargueras. 1.627 urtean

Fernandez-Velasco. 1.667 urtean. "Pobres bagan-tes" diño liburuak.

Gonzalez-Santisso. 1.696 urtean, "Lugo'tik eto-riak".

Gonzalez-Nuñez 1.696 urtean, "portugueses".

Orretxek dira XVII garren gizaldian agertzen dira-nak.

Aurrerago, XVIgarren gizaldian, ain zuzen be 1.561 urtean, egon zan bateo bat, baiña ezin geinke esan ziur erdalduna zanik. Bikarioak bere agirian au ipinten dau: X X Maria. Au da ezelako abizenik ez. "De un mance-bo forastero y Maria de Gorozika".

"Un mancebo forastero" ori, kanpotarra izanarren, ez dakigu euskalduna izan zan edo ez. Beraz ezin erde-razkotzat artu, gaiñera abizenik ez eutsen ezarri be-ta..

XVIII garren gizaldian oneik aurkitzen doguz:

Fuelles.— (1.705 urtean). "De Madrid, pobres que andan pidiendo".

Valle.— (1.710 urtean). "pobres, de Henares de este Obispado."

Trujillo.— (1.746 urtean). "pobres mendigos"

Vega.— Asturias tik etorria.

Abizen oneri buruz esan geinke lenengo Vega onda-rrutarra 1.618 urtean jaio zala. Gizaldi orren barruan beste lau geiago, au da, danetara bost. Eta XVIII garre-nean, beste amabi. Eta XIX garrenean euren aztarrena galdu zan. Bat bakarrik ez.

1.768 urtean Ruiz de Dulanto bat agertzen da, Errio-

EUSKAL ASTEA

xatik etorrita, Naxera aldetik. Ruiz de Dulanto, Dulanto Ruiz edo Turanto Ruiz be irakurten da agirietan. Danak sendi bateko. Esku-langilleak, pioiak.

1.750 urtean, Trizio bat jaioten da, Cenicero'tik etorritakoen semea. Jaiotza bakarra. Geiago ez da agertzen agirietan.

1.784 urtean, Villafria'tik etorritako Martinez de Llano. Iru jaiotza eta bertan bera amaitu.

1.799 urtean Palentzia'ko odoldun Perez bat jaioten da. Bakarra gizaldi onetan. Urrenguan agertuko dira beste lau.

XIXgarren gizaldiko lenengo 50 urtetan beste sei famili erdaldunen menduak ezagutzen dira.

Jimenotarrak datoz Briviesca'tik. Deituta etorri be. Organu jotzaile. Musikalari, sakristau, maisu, dana izan zan. Gizaldiaren barruan 35 Jimeno bateatu ziran bertan. 1.803 urtean jaio zan lenengua.

Lau urte geroago beste abizen ugari bat agertzen da: Mejias. Ez jakin nundik etorriak diran. "Se ignora" irakurten da partida baten, gurasoen jatorriari buruz. Amasei jaio ziran gizaldiaren barruan.

Beste bat, Salamanca'tik etorritako Talon izan zan. Bakarra jaio zan 1.814 urtean.

Gomez, San Roque'tik etorriak, 1.841 lenena eta geroago bost.

Urte berean jaio zan Ramos bat, Valdepeñas'tik etorria. Oneik be bi izan ziran gizaldi guztian.

Bi izan ziran baita gizaldian jaiotako Ruiz, Ciudad Real dik etorriak.

Gizaldiaren erditik aurrera ugariago datoz erdal abizenak, baiña geienak seme bakarren bat edo bi agertzen dira ta gero galdu. Ba dira orraitio Santander alde-tik etorritako saltzailleak "pasiegoak" Abascal, Lavin, bertan gelditzeko asmoz, batak lau seme eta besteak iru munduratu zituenak gizaldiaren barruan gure erri onetan.

Erdal abizenen agerraldi onetan argi ikusten da famili orreik ez zirala bertara etorri, zeregiñen bat betetera baiña, eta denbora gitxi egiten ebela emen.

Ala abizena bertan sustraitzeko denborarik ez eben artu ez emen.

Ba dago abizen bat, erdal abizen bat, Euskalerritik Ondarroa'ra sartua: Rodriguez 1.887 urtean agertu zan Azpeiti'tik. Jakin egin bear Azpeiti'ra noiz eta nundik joana zan.

Gure Lege-zarra galtzeak, gure Fueroak galtzeak ba dauka zer ikusi erdal abizenak agertzeakin. Karabiñeru eta abar ez ziran euskaldunak, erdaldunak baiña.

Ondarrutar abizen jatorrak

Zeintzuk ete dira ondarrutar abizen jatorrak?

Nire ustez, XVIgarren gizalditik Ondarroan ezagutzen diranak, ezelako aitzaki barik ondarrutartzat artu bear dira eta ala deitu leikioe. Jator jatorrak. Eskubide

osoz. Orrela, gizaldi orretan, erriko jaiotzak irakurri edo jakin eta bateko nai besteko erri nai parroko paperetan edo ta liburuetan agertzen diranak, atakotzat artu eta aitatu doguz.

Orrela ondarrutar jatorrak dira:

Abadea; Abaitua; Agirre; Aia; Albis; Alegria; Aliri; Alzaga; Anakabe; Andonegi; Ansola; Apallua; Arana-ga; Arano; Aransolo; Aranzibia; Areskurenaga; Aretxaga; Arezmendia; Armentia; Arrangiz; Arrasate; Arregia; Arriaga; Arriola; Arrizurieta; Arronategi; Artolazaga; Asentzio; Askube; Assurra; Asterrika; Ategu-ren; Aulikiz; Aiardia; Askartza; Askarretazabal.

Baraiko; Barinaga; Barrenetxea; Basas; Basterretxea; Basterrolaza; Beitia; Belendiz; Bengoetxea; Bermeo; Berriatua; Berroia; Bidagorri; Bidezabal; Burgaña; Burgoa; Bustinzuria.

Dendaidi.

Etxaburu; Etxano; Etxebarria; Etxebarrieta; Egia; Eizagirre; Egurrola; Elantxo; Elexpurua; Elgezabal; Elordi; Elorriaga; Endaidi; Eizmendi; Elexalde; Elgeta; Estakona.

Gabaroa; Gabiola; Galartza; Galbei; Galdua; Gallate; Ganboa; Garduza; Garro; Gasturua; (Gastuna); Goikoetxea; Goikolea; Goitia; Goitiniz; Gorostieta; Gorozika; Gillestegi.

Ibarguren; Ibarra; Ikuza; Igara; Illoro; Inprubidi; Iramategi; Iraola; Irarrazabal; Isasoeta; Iturrino; Izea.

Heria.

Labeaga; Laka; Larraga; Lasao; Lejardi; Lekuia; Likona; Lorriaga.

Makoaga; Markina; Marzana; Meabe; Mendiola; Miskia; Monguruza ta Muguruza; Murube.

Nafarmendi

Obekola; Olabarria; Olabarrieta; Olabe; Olarra; Olaso; Onda; Ondarroa; Orbea; Ormaetxea; Orioso; Orobio.

Portu; Puerto; Patroi.

Renteria; Romo.

Sagarraga; Santa Kruz; Sasturri; Sestona; Sustaeta.

Tellaatxeri; Tellarilea; Torrealdea; Txurruka; Txopite.

Ubea; Ubilla; Ugarte; Unda; Uriarte; Urkiaga; Urkiagabaso; Urkiola; Urriola; Urrunaga.

Yarza.

Zaldua; Zamora; Zapatarikoa; Zezermendia; Zelaia.

Ez dira danak. Baiña ez doguz aitatu nai gizaldi guztian jaiotza bat euki ta gero, ondorengo gizaldietan be agertzen ez diranak.

Abizen onetako asko gaur be ezagun dira. Ezagun ezagunak. Etxekoak. Geienak Ondarroan bertan. Ba dira, orraitio, gizaldi orreitan ugariak izanarren, gero bertatik laster urrundu ziranak. Oneitariko bat da Likona. XVI garren gizaldiaren bigarren erdikadan 24 jaio ziran abizen orretakoak. Urrengo gizaldian bi bakarrik eta emendik aldendu.

Portu, Puerto, askotan ez da garbi irakurten. Ama-

sei jaio ziran beintzat aitatzen diardugun denboran. Urren gozaldian, XVII'n bat bakarra eta orain ezagutzen diranak Usurbil'dik agertu ziran 1.874 urte inguruan.

Beste ondarrutar ezaguna zan Sasturri. 11 agertzen dira XVI garren mendean; 41 XVII'an; 27 XVIII'an eta XIX garrenean iñor ez.

Unda abizenari be bardintsu gertatu jakon. 15 abizen XVI garren gozaldian; 23 XVII'an eta geiago ez.

Inguruaren eragiña abizenetan

Bidezkoa da abizen barriak inguruetatik agertzea, erririk urrenetatik. Gizaldi askotan ez dira gaur lako ar-tu-emonak euki izan. Bakoitza bere erriari lotuago bitzen zan len. Ori zan euskaldun izatea.

Gaurko aurrerapiderik ez, ibillaldietan erriz-erri ibilteko: alkar ezagutzeak dakarren traturik ez, bizibide aukeratsuen irabazpiderik ez, biderik be ez aukeran norbere etxetik edo erritik aldentuteko.

Origaitik bidezko da urren dagozan erriak izatea odol barria ekarri dabenak: famili barriak sortu eta batu eragiñaz.

Ala Berriatua eta Mutriku, auzorik urren lez, eurak izan dira gure erriari abizen barriak ekarri dautsezanak.

Berriatua tik etorriak dira: Agirre-Amalloa; Albisua; Aldasolo; Antxustegi; Armenza; Azumendi; Be-reikoa; Burundarena; Kalzakorta; Korostola; Elu; Garramiola; Gojenola; Ibarloza; Irueta; Irusta; Itola; Iturriaga; Manzisidor; Orobio; Oriosolo; Utxupi; Ugalde eta Ugartetxea.

Mutriku'tik: Ajarrista; Amutxastegi; Aristondo; Astigarraga; Azkarate; Basabe; Basurko; Etxea; Egaña; Epelde; Gabilondo; Iriondo; Idoeta; Imaz; Iturriaga; Lezea; Lezeartua; Lekube; Legarda; Lezartzaburu; Mendizabal; Mendibeltza; Osa; Pagoaga; San Martin; Urkaregi; Urkidi eta Zubizarreta.

Lekeitio tik: Akarregi; Argintxona; Atxa; Koskorrotza; Garalde; Maruri eta Otxoa-Antezana.

Baiña zabaldu gaitezen geiago. Obeto zeaztu. Onela ikusiko dogu gure erriari eskua luzatu eutsen erri eta inguruak zeintzuk izan ziran.

Bizkai ko erri eta auzoak

Esana dogun lez ba dira abizen batzuk asiera baten ondarrutar jatortzat izentatu doguzanak. Baiña euretari-ko batzuk euki eben utsune bat, urteetako utsunea. Eta gero kanpotik etorten asi. Erraz igarriko da ori abizen batzutan. Gaur ezagutzen doguzan abizenen iturria, geientasun baten, erri oneitan dago

Abadiño: Arginzoniz, Garitaonandia, Ortuzar eta Salazar.

Akorda: Gandarias.

Amorebieta: Artabe, Belaustegigoitia.

Amoroto: Atxurra, Agirreoa, Ajubita, Aldekoa, Arrasate, Goiogana, Markue-Erkiaga eta Txakartegi.

Arrankudiaga: Korta.

Arratzua: Zaldunbide.

Arteaga: Obieta eta Ozamiz.

Aulestia: Ibañez-Aldekoa eta Legarra.

Barinaga: Aranzeta; Pagate.

Basauri: Arteagagoitia.

Berriatu: (Gorago esanda dira bertokoak)

Bermeo: Arrospide; Artaza; Belaustegi.

Bedarona: Zarakondegi.

Berriz: Artalarrea.

Bilbao: Arenaza; Eskoriaza; Gimón; Iraragorri; Iturrioz; Korteseña; Larrea eta San Antonio.

Bolibar: Olea.

Deusto: Artola; Zarraga.

Durango: Lasuen; Olano.

Ea: Endeiza; Jauregi; Urzaa.

Ereño: Iduriaga.

Erandio: Arauko.

Ermua: Alegria; Zengotita

Etxebarria, San Andres: Azpillaga; Ibarrola; Igar-tua; Lejardi; Zigarán.

Galdakano: Astegia

Gernika: Mendibe

Gerena: Ibaibarriaga

Gizaburuaga: Okamika

Gorliz: Areaga

Ibarrangelua: Bakeriza

Jemein: Agirretxea; Aulestiarte; Azumendi; Barroetabeña; Beristain; Gazagaetxebarria; Ibarrolaza; Larruskain eta Urrosolo.

Lekeitio: Gorago zeaztuta dago.

Mallabia: Amillategi

Markina: Aldazabal; Arkotxa; Aulestia; Azpiri; Barinaga-Rementeria; Balenziaga; Garmendia; Idueta; Ttuarte.

Mendeja: Abaroa; Amallobieta; Amesti; Egiguren; Goitiandia.

Mundaka: Bedialauneta; Launeta

Munitibar: Urrutia

Mungia: Larrauri; Madariaga; Zuazaga.

Muskiz (San Julian): Saras

Otxandio: Aspe.

Araba'tik

Ba dira Araba aldetik etorriak be. Ez asko. Baiña batzuk bertan gelditu ziran eta gaur be bertan jarraitzen dabe.

Aramaiona: Aginagalde.

Erretolaza: Martinez de Luko.

Legutiano (Villarreal): Izarra

Urrunaga: Nafarrete; Ortiz de Zarate; Zaitegi;

EUSKAL ASTEA

Otxoa-Antezana (Abizen au, Bizkai'ko Lekeitio 'tik etorri zala esan dogu gorago eta alaxe izan be, baiña andik etorri ziranak jatorriz Urrunagakoak ziran).

Zalduendo: Garzia

Naparroa'tik

Azpiroz: Otermin.

Elizondo: Elexondo (XVII garren gizladian lau jaio ziran eta geiago iñor ez)

Illarra: Itxaso (XIX garren gizaldian 23 jaio ziran emen. Ondarroan "napar txikixa" neko deitura euken. Ospetsua izan zan bizarkentzalle, aginataratzalle ta abar izan zan bat)

Lekunberri: Agirre-Baliere. XVIIIgarren mendean 6 jaiotza agertzen dira. Agirre asko ezagutuarren, Baliere'gaz lotutakorik ez da geiago ezagutzen.

Orbaizeta: Beretorbide.

Saldias: Berrio

Santesteban: Etx ai de

Sesma: Garrafa.

Bee-Naparroa'tik

Lurralde aretatik etorria da gaur be oraindik gure errian ezagutzen dan abizen bat: Korpeon.

Gipuzkoa 'tik

Gipuzkoarren odola ugaria izan da Ondarroan.

Gorago Mutriku aitatu dogu, auzoerri lez. Baiña gaur emen ezagutzen diran abizenik ugariak Azkoititik etorriak dira. Odol barri, bero eta ugaria sartu zan bertatik. Eta ez txori antzera gaur pikoka egin eta gero iges egiteko. Azkoitiarrak etorri eta gelditu egin ziran eta abizen bakarren bat kenduta, besteak ondarrutar jator lez uste dira.

Abizen bakoitza noiz etorri zan ikusteko, bear ba da Azkoititik gure errirako erriz aldatzea ezagutzeko, balioko dabe abizen bakoitzaren atzean, emen lenengo jaiotzako agerbidearen urteak zeaztutea. Ala egiten dogu, bereakoen erreskadan.

Aizarna: Ulazia; Zulaika.

Alegria: Larrauri.

Alzola: Bernedo: Ondarza.

Amezqueta: Gorostegi

Angiozar: Belarroat.

Aretxabaleta: Agirre-Elejoste

Asteasu: Gaiztarro

Astigarribia: Lekue

Ataun: Barandiaran; Urrestarazu.

Azkoitia: Alberdi, 1712 urtean; Albissu, 1.684; Aikorta, 1.817; Aranburu, 1.790; Aresti, Arizti, 1.719; Ar-

goitia, 1.764; Arrizabalaga, 1.758; Artetxe, 1.821; Arzamendi, 1.682; Azpiazu, 1.777; Badiola, 1.729; Beristain, 1.814; Etxaniz, 1.745; Irueta, 1.784; Izurrategi, 1.813; Joaristi, 1.655; Landa, 1.837; Larreandia, 1.741; Lete, 1.770; Makibar, 1.698; Uzia, 1.835; Unanue, 1.701; Usobiaga, 1.732.

Azpeitia: Bikandi; Elustondo; Gereketa; Odriozola eta Rodriguez.

Deba: Aizpurua; Arakistain; Arrue; Berastegi; Elezgarai; Idiakes eta Irala.

Bergara: Gallastegi; Iturbe; Uribe.

Eibar: Lasarte; Unzueta.

Elgoibar: Abadea; Alzolabeia; Arano; Arraskaeta; Basaguren; Elgoibar; Guenetxea; Larrañaga; Larrinaga; Lizundia; Osoro; Urizar eta Urruzuno.

Errexil: Usandizaga.

Donosti: Durana.

Itziar: Esnaola; Uranga; Zendoia.

Idiazabal: Abendaño.

Getaria: Etxabe; Uranga; Zendoia.

Lasarte: Treku.

Legorreta: Irigoien.

Lizartza: Olarreaga.

Mendaro: Balzola; Irueta; Makuso; Odria; Zubikarai.

Ondarribi: Landaribar.

Orio: Berridi.

Oñate: Arregi; Elorza.

Pasai: Aldanondo.

Plazentzi (Soraluze): Laskurain; Maiztegi; Sajarrieta.

Urnieta: Barrena.

Zarautz: Agirresaroe; Areizaga; Ostolaza; Solabarrieta.

Zumaia: Agirrezabalaga.

Ara or, zeaztasun geiagotan sartu barik, Ondarroa'ra batetik eurak bizi nairik eta bestetik gure erriari bizia emoten eta odol barria ekarten etorri ziranen sorlekuak.

EUSKALDUNEN ABIZENAK

Arbasogandik artu genduzen
zorioneko izenak,
etxeke odol garbi garbiaz
egokiro alkartuak;
ez dira ustel, ez guzurrezko
gurasoen abizenak;
mendiak legez, arkaitzak legez
egoki aukeratuak.

Gizon ta andre, talentu eder
lur onetan bizi ziran,
ta jakituriz jokatu eben
euren izen ederrtan;
ez ziran joan urriñetara
buru bageko bidetan,
urrezko itzak, bertan, itzirik
astuta lur ederretan.

Egurrola ta Agirrolea
Mendia eta Arana,
orbegozo ta Letamendia
Goiri ta Madariaga;
Agirre eta Ariztimuño
Artetxe ta Gandiaga,
ederragorik zer nai dozu ba
uste urrezko egiña...

PAULIN

ATZO AMAITU ZAN EUSKAL ASTEA, EUSKERAZALEAK ALKARTEAK ANTOLATUTAKOA

BILBO. Altzo amaitu zan Euzkerazaleak Alkartek eratu dauan Euskal-Astea Eskolapioen Ikastetxean. Azkenengo itzaldia Zubikarai'tar Augustin'ek egin eban eta beronen gaia euskaldunen Abizenak izan zan.

Gure abizenen oianean askotariko zugatzak dagoz eta erriaren kondaira be agertzen da.

Abizen batzuk zugatzak dagozan lekutik sortuak dira, esaterako Lizardi edo Zugazti. Beste batzuk etxea non dagoan adierazten dabe, esaterako Goikoetxea, beste batzuk, ostera, langintza gogoratzen dauskue, oletan, sutegietan, liñugintzan eta olakoetan agertzen dan langintza eta or daukaguz Rementeria, Linaza, Olazabal eta antzeko abizen ederrak.

Abizenak etxean dau bere oiñarria, iñoz errian be bai, orregaitik esaldi au entzuten dogunean "Olazabal'-darrak etorri dira", gauza bi adierazten doguz, "dar" orrek sendi aretakoak eta Olazabal baserrian jatorria daukenak dirala esan gura dau.

Oraindiño abizenen azterketa osoa egiteko dago.

Alkar izketa ta bertsoak entzun ziran, egun guztietan lez, itzaldiaren ondoren.

Geiago barik, Zubiri'tar Iñaki Euskerazaleak Alkartearen Lendakariak, amaitutzat emon eban Euskal-Astea.

Azkenengo laburpen au egindakoan, Euskerazaleak Alkartek bere esker ona agertzen dautse, izlariei eta baita aretoa biotz onez itzi dautson Eskolapioen Alkarteari bere.

DEIA'tik

FORUA EUSKERAZ

Guztiok dakigu euskaldunen forua, Bizkai'koa, bizkaierara itzuli ebalu puxana'tar Pedro gure lankide ta adizkideak. Liburu ederra eta itzulpen ona, benetan.

Batzarren eta Bizkaiko jaunaren gaia aztertu eban arrien'dar Gregorio'k Euskal Astea eta bere naia izan zan aitamen edo zitak, egozan lez, erderaz idaztea eta orrelan egin zan.

Argi geratu beite Puxana jaunaren lanari zor jakon garrantzia emoten dausagula.

Euskerazaleak

BERRIO-OTXOA'tar Balendin deunari

Adan ta Eha izan zirandik
gaurko egun oneitara,
martiriakin beteak dira
munduan ainbat altara.
Gu Bizkai'tarrok oraintsu-arte
geure barik izan gara.
Gaur zorionez gure Balendin
jaso da mailla ortara.

Gure Balendin umetatik zan
nmilla ta apala,
Kristo'rengana nai izan eban
biurtu mundu zabala.
Jakín daiala mundu guztiak
Balendin Bizkai'tar dala
ta Bizkai'tarrok orain Bizkaia'k
santu andi bat daukala.

Aitak etzean nai izanda be
arotzian laguntzeko,
Jaunaren deia barru eukan lez
au etzan bere barruko;
gudaloste bat jarri ba'zan be
beretik aldatuteko,
arturik eukan erabagia
aitak au esan orduko.

Jainkoarentzat arima-billa,
maitasun ta oraziño.
naizta bidean asko aurkitu
sasi, arantza ta laiño,
asmo sendo ta fedea eukan
bizia emoteraiño.
Eta bizia emon ezkeru,
ezin geiago au baiño.

Bertsotan esan al ba'litzake
nor diran gure santuak,
esango neuke dirala eurak,
Jainkoak berak autuak.
Bakoitxak doguz geure argiak,

Jainkoagandik artuak,
baiña santuak daukez aparte
inirarizko merituak.

Urkoarentzat zorion-billa,
maitasun beroenakin,
baiña Tonkin'en bere asmorik
jentillak ez eben jakin.
Txartzat artuta samea kendu
ezpata andi batekin.
Zer egin eben ez ekien-ta,
danai parkatu Balendin.

San Balendin'en santutasunez
zerbait al ba'dogu esan,
esango neuke kristiñau danok
or ziur egon gaitezán:
naita oraindik asko ez dala
santu konfirmatu izan,
gure Balendin misiotara
santu eginda joan zan.

Euskalerrian ez doguz baiña
gure santuak ugari,
daukaguzanak oso andiak,
eroe ta martiri.
Gaur emen dogu gure Balendin
eskerrak Elorrio'ri.
Aurrerantzako autu dagigun
gure Bizkai'ko Zaindari.

San Inazio da gure patroí,
arorik gagoz berakin,
Gaur Bizkaia'n be santu bat dala
danok egin daigun jakin,
eskatu geinke indartsu-eta,
gure errazoiarekin,
Bizkai'tarrentzat Bizkai'ko Patroi
jarrai daien San Balendin.

PUXANA'TAR BASILIO'K

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguezue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.
Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

ABERTZALEAK. KARLISTAK ETA SOZIALISTAK

II

Ibañez **Karlos'eri** begirunez:

Irakurri ditut zuk nere lanari erantzundakoak eta pozgarria da iñork geure lanak irakurtzen dituala jakitea. Gañera, orrelako lan luzeakin erantzutea, pozgarriago.

Nik bizkaiko karlisten berri gutxi dakit, naiz-eta Barakaldo errian 9 urterarte Portu kaleko 6'garrern zenbakian bizi izan. Gure etxe aurrean, lenengo solairuan, zeukaten C'rculo Carlista eta ez dakit besterik ote zegoen erri aretan. 1920'ean Santa Ageda besperan, an ikusten det gazte talde bat, makillak eskuetan, kanta-kantari. Beerago, gure etxearekin lerro berean, bigarren zenbakian edo laugarrenean, Batzokia zegoen eta neure irudimenean ikusten det nola jai-aratsalde batean barrura indarrez sartzen alegindu ziran.

Bederatzi urte betetzeko nengoela aldatu giñan Barakaldo'tik Lazkao'ra. Barakaldo'ko Portu kaleko 6'garren zenbakiko laugarren solairuan bi famili bizi giñan batera. Andrazkoak biak ziran Lazkao'koak, nere ama eta bere aizpa Maria, Esteban Kortadi'rekin eskonduta zegoena. Guk Lazkao'ra alde egitean, besteak Sestao'ra joan ziran, Esteban Altos Hornos'etako La Hojalata'n lan egiten zuelako.

Kortadi familia Beasain'go baserri batetik etorri zan Esteban jaio aurretik. Gerora (1931-1936) Sestao'ko Iberia kale barrenean bizi ziran Esteban eta Maria iru seme-alabekin. Bera zan erriko Karlisten edo Jaimisten buru. Andik eraman zuten Cabo Quilates ontzira eta an erail zuten "Jaime" gerra-barkuko mariñelek.

Gipuzkoa-goierriko geiago ere joan ziran aruntz aurreko eunkiaren azkenean eta Kristau onak ziran eta orduko sozialisten artean Kristau irautea ez zan gauza erreza. Orregaitik edo, guztiak ziran karlistak, lenengoz beintzat. Esteban erail zutenean, gu beste aldetik gebiltzan, erreketen karlisten mendean. "Itxasontzietan gaur ixiltzen diran gauza izugarriak jaso ziran". Egia gaur ixiltzen dirala, baña orduan eta geroago naikoa aizeratu ziran. Beste aldekoak ixiltzen ziran ondo asko.

Bizkaiko karlisten beste berririk ez dakit; zeuk eman dizkidazu zenbait. Baña, Gipuzkoa eta, batez ere, Naparroa'koenak badakizkit, Santiago bigaramonean sartu bait zan Lazkao'n Columna Cayuela, erreketez eta falangistez ornitutako gudari-sailla, Naparroa'tik zetorrena, Ataun'go Lizarrauzti mendartean beera. Bidean tirorik bota gabe eldu ziran eta, erritik irtetzean, asi ziran tiro bakan ba-

tzuek. Apaizgaia nintzan eta urte bete falta apaizteko. Bagiñan beste batzuek ere apaizgaiak. Beasain eta Ordizia artuta, Tolosa aldera jo zuten.

Beasain'dik Zumarraga'ra tartea gelditzen zan utsik, "tierra de nadie" esaten dana. Orduan Errekete Konpañi bat laga eben Lazkao'ko jaunaren (Duque del Infantado) jauregian, alde ura zaintzeko eta Olaberria'ko eleizeari lur-sakuzko esi bat egin zioten Zumarraga'ra begira eta bertan Errerkete taldetxo bat laga begi-luze.

Sei apaizgaiok indarrez "voluntario" sartu gianduzen eta an ibilli gintzan Caparroso'ko erreketekin mendian gudako plantak egiten eta xistemak ikasten. Kostatu zitzaigun andik irtetea; ez da istoria motza. Navascues'en jaiotako Marco erreketeteniente zan Lazkao'ko konpañiaren buru eta Zipriano Torrubia, Otxagabia'ko medikuaren semea, buru ordeko alfereza. Marco aspertu zan ango pakearekin eta joan zan Tolosa aldeko frentera.

Torrubia gelditu zan Jauregiko taldearen buru eta bere izketa-aldiak gurekin izaten zituen Caparroso'ko nekazariekin baño erreza. Kotxe bat bazeukan bere serbitzura-ko, gasolina txartelak egiteko aalmena bazuen, eta errez ibiltzen giñan bidean eta, alako batean, San Adrian'era jo genduan Muerza lantegikoak agurtzera, janari asko presatzen bait zuten gudarientzat. Bidean goazela, errepideetako aldamenak arrotuta zeuden:

—Aizak, Zipriano, lur arro auek zer dira?

— Eraildako jendea.

Orduan jakin genduan eunka il zituztela erribeerako errietan, pake garaian boto bat ematearren. Oiek danak ixildu egin ziran. 1936'garren urteko Dagonillaren 13'an Iruña'ra eraman ninduen eta an, lagun batzuen etxean, onela esan zidaten:

—Ez dakizu ondo gure errian (Gipuzkoa'tik gertu dagoen erri batean) zertzuk gerta diran.

—Zertzuk?

—Kamioian jendea sartu (egillearen abizenakin esan zidan) eta mendian amildu.

Ordizia artu ondorengo egunetan, Lazkao'tik Ataun aldera kamioiak pasatzen ziran jendez beteta. Andik ordu pare batera, utsik bueltatzen ziran:

— Zer egiten diozute jende orreri, Torrubia?

— Lizarrauztiko aldatatik ez dira pasatzen aurrera.

Lazkao artutako astean, Ordizia oraindik artzeko, 22 erreketen eta sargento bat arrapatu zituzten Lazko-mendi'n gorriek eta aizkenerako Larrinaga'ko artara eraman zituzten. Pasa ziran illebeten batzuek eta Bilbo'ko bonbardeo baten ondoren, berreun il zituzten berria zabaldu zuten. Egun artan Torrubia agertu zan sekulakoak esaten, begie-

ERRIGINTZA

tatik txinpartak zeriela. Gure etxeokak bildurturik zeuden ari begira, ni agertu nintzanean:

Zer pasatzen da emen?

– Berreun baiño geiago il dituztela gorri oiek Bilbao'n.

– Bai, eta ik an Lazkao-mendi'n arrapatu zuten anaia daukak; ik ez dakik bizirik ote diraun; baña, orain arte bizirik iraun dik. Eta, zuek zenbat il dituzute baztarretan? Gogoratzen aiz San Adrian'ganako errepideak?

Orren bestez ixildu zan; baña, barruko bere amorrua ez zitzaion baretu, bat ere... Andik garai batera, mutilla bizirik agertu zan eta orduan bere anai alferezari galdera bat egin nion:

– Zuen anaia mendian preso artu zuten eta bizirik dago; alderantziz izan ba'litz, zuek zer egingo zenieten?

– Fusilatu.

Gerratea izanda ere, apaiztu ninduen eta 1938'garren urtean Iruña'ko Hospital Militarrean nintzan kapellau. Torrubia, erreketek-alfereza, berriz, gudaketatik alde eginda zebillen eta an zeukan bere lantegitxo. Askotan alkartzen giñan eta egun batean onela mintzatu zitzaidan:

– Nere gerrateko poz bakarra, eskuak odolez garbituta gordetzea, izan da.

* * *

Joan dan eunkian bi guda-aldi izan zituzten karlistak eta biak galdu. Eunki onetan, bat eta irabazi. Eurak guda irabazi eta falanjistek opilla jan.

– Emen ezer lortu nai ba'dek ez ari karlistekin joan, falanjistekin, baizik.

Ori esaten zidana, mangante xamarra zan eta gauza asko lortutakoa.

Fueroak daramazkilla bere barruan Patria itzak, ez nuen sekula entzun: "Jendea foruakaz aske bizi dan lurra, auxe da Patria". Orrela esaten dezu eta, orrela esanda, patria ori Euskalerrria litzakela, dirudi. Baña, ez da orrela izango, zeure berbak bait dira auek: "Cadiz'erañño Patria zabalduetea Euskalerrriko tradizioaren muiñean dago". Eta arrazoi au ipintzen dozu: "Sevilla'tik zear Ameriketatik etorri jakuzan indabak, artoa, tomateak eta dirutza andia. Andik etorritako diruakaz eraiki ziran gaur Bizkaian eta Gipuzkoan doguzan jauregi eta eleiz ederrenak". Ala izanik, Ameriketarañño zabaldu bearko genduke Patria ori.

Baña, Ameriketako dirua ez da dana Sevilla'tik etorri. Ternua edo Ten'anova'tik zuzenean ere bai. Bale-arrantzak dirutzak ekarri zitun gurera, eta bakaillauak. Berreun itxas-ontzi ebiltzan batera Terranova'ko bidean XVI'garren eunkian... Dana dala, beste aldeetako Ameriketara joateko, Sevilla'ra joan bearra izaten zan abimenak eta abar atartzeko.

tza. Errepublikaren aurka alako borrokean karlistak gura ebezan abertzaleak bere alboan euki... Gauza bat esan al dot: ordu aretan EAJ ez zan askea aukeratzeko. Gero, nai ta alde berean borrokatu, gorriak ez ziran adiskide onak abertzaleentzat".

Errepublikaren aurka jeiki zirala, Torrubia alferezari entzundako kanta batetik ateratu nuen: "Republica publica" esaten zuen kanta arrek, eme-galdu bat ba'litz lez Republica ori. Gorriak ez zirala adiskade onak gertatu abertzaleentzat? Ala entzuten nuan. EAJ ez zala aske gertatu? Dudarik gabe.

Lazkao'n bizi nintzan gerra sortu zanean. Aste osoan egon giñan zerura begira, iñork zirkiñik egin gabe. Beasain'go sozialista eta anarkistak mogitu ziran lenengo egunetik. Abertzaleak ez zekiten nora jo eta zer egin. "Euren arteko burrukea da eta gauden gu begira". Ori zan orduko filosofia. Tirorik bota gabe eldu ziran Santia-go bigaramonean. Baña, lenengo unetik abertzale billa asi ziran eta lenengo "garbiketak" ikusi ondoren, bakoitzak al zuen tokira egin bear. Lazkao artuta, Beasain'dik Ordiziara erri guztiak iges egin zuen; laurden bat bakarrik geratu: karlistak eta politikan sartzeko oiturarik ez zutenak. Beste guztiak alde egin zuten. Beasain'en guardia-zibillak egin zieten aurre, 24 orduz. Sartutako gabean 39 giza-seme fusilatu zituzten illerrian. Aien artean Urteaga dendaria, karlista famatua inguru aretan...

Orrela zetoztela ikusita gero, gorriekin bat egin bear. Eta, orixe esaten genduan geuk ere: Nola liteke ain itsuak etortzea; eskua luzatuta etorri ba'lira... Mola'ren okerra orixe izan zan: "Aterrar" eman zien agindu, eskua luzatu bearrean. Nik ez dakit Bizkaia'n zertzuk gertatu ziran; baña, gerraren asierak azpian arrapatu nindun. Eta, oien berri zeatzak ondo dakizkit. Bizkai'ra alde egiterik izan ba'nu. Bizkai'ko berri jakingo neuke; baña. Lazkao'n nengoen ala bearrez erreketean mendean benetako burruka asi orduko...

Dana dala, oiek aspaldiko gauzak dituzu eta zaarron eogoramenean daudenak. Egia da sozialismoa Napparroan zabaldu dala, zenbait abertzaletasun sozialismo biurtu dala: ez gorri eta ez urdin. Batzuek, ordea, oraindik ere "lengo lepotik burua".

Euskerari buruz, abertzale asko erdaldun, erdaldun asko euskaldunduta, Hatxedun Euskera Batu aberatsak lagun asko bere errapetik zintzilik, eta, arazo orretan geuk ere "lengo lepotik burua..."

Historia bizitzaren maixu ba'da, iru urteko gerra zitak, alkarrekin bizi izaten erakutsi digu... Ez naiz gaurko gazteekin ari: ez dakit auek zer joera duten; bear ba'da pentsako dute guda ura galaxietako gerraren bat izan zala... Geuk amestutako ameskeri uts bat izan ote zan?

"Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan artu".

"Gerrateari buruz Arrinda jaunak diñoana ez da zea-

A'TAR A.
Iibeltza. 1994


EUSKALDUN BARRIENTZAT

A	T	U	B	O	J	K	L	Z	I
B	M	S	L	T	A	H	B	A	S
H	Z	A	N	L	Z	X	K	Y	O
L	R	T	I	B	O	T	S	M	N
C	J	O	S	T	A	R	I	H	A
A	M	N	Z	L	A	S	A	T	L
H	S	J	A	U	R	T	I	Z	B
B	N	L	H	A	B	U	U	S	M
E	L	E	B	E	R	R	I	T	L
M	O	P	R	K	L	A	B	O	N


Itz-salda onetan 6 itz onek aukitu bear dozuz:

Maitatu
Jazo
Eleberri

Kai
Jaurti
Jostari



Gizon bat bakarrik elduko da zirkora, zein?




Gizon onein artean, bi bakarrik dira bardiñak.
Zeintzuk?

Andereño ezjakiña

- Andereñoak ez dakiela irakurten uste dot...
- Zergaitik diñozu ori?
- Arbelean idazten dauanean guk irakurteko esaten daualako...

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

150 PEZETA